## Baleei buruzko elezaharrak

ETB1 • 02:00etan

Goizaldean, *Itsas Ugaztunak* programaren barruan *Baleei buruzko elezaharrak* izeneko dokumentala eskainiko du euskarazko kateak.



## ETB 1

07:10: **Superbat.** Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Ginger, gerriko beltza', 'Mamu harrapakariak', 'Doraemon, katu kosmikoa', 'Pottokiak', 'Sylvan', 'Mutanteen liga'.
09:50: **Goenkale.** Telesaila.
10:30: **Axut.** Lehiaketa. Errepikapena.
11:00: **Bizitza izotz artean.**
11:30: **Euskal Herritik.** Dokumentala.
12:00: **Gabonetako zinema.** 'Heidi'.
12:50: **Iparraldearen orena.**
13:00: **Superbat.** 'Harriketarrak'.
13:30: **Gaur egun.** Albistegia.
14:20: **Goenkale.** Errepikapena.
15:00: **Axut.** Errepikapena.
15:30: **Hamaika korapilo.** Miren Aranburuk aurkeztutako saioa. 'Altuak'.
17:05: **Iparraldearen orena.**
17:15: **Superbat.** Candy Candy', 'Superrak', 'Gabonetako zinema: Txakurrak zerura doaz', 'Supernet'.
19:30: **Euskaraokea.**
20:00: **Gaur egun.** Albistegia.
20:25: **Saskibaloia:** Euroliga. 'Tau Ceramica-Maccabi Tel Aviv'.
22:00: **Goenkale.** Telesaila.
22:50: **Algara.** Umore saioa.
23:50: **Euskal Herritik.** Dokumentala.
00:25: **Izar Bila.** Kantu lehiaketa. Errepikapena.
02:00: **Itsas ugaztunak.**
02:25: **Gure lanbide zaharrak.**
02:55: **Gizon traketsak.** Telesaila.
03:25: **Nire bi aitak.** Telesaila.
03:50: **Amaren etxea.**
04:15: **Euskal espioitza.** Dokumentala.
04:45: **Hamaika korapilo.** Errepikapena.
06:15: **Alien empire.**
06:40: **Magdalenak.**
08:00: **Maite dut nire hiria.**

## ETB 2

08:40: **Del pais de los vascos.**
09:05: **Hudson street.**
09:30: **Forum.** Gotzon Toral kazetaria elkarrizketatuko du David Barberok.
09:55: **Los misterios de Ruth Rendell.**
10:50: **Zinema.** **Un día con el diablo.** Zuzendaria: Miguel M. Delgado. Aktoreak: Cantinflas.
12:25: **De par en par.**
12:55: **La cocina de Pedro Subijana.**
13:10: **Remington Steele.** Telesaila.
14:05: **Informativo territorial.**
14:28: **Teleberri.**
15:20: **ETB Kirolak.**

**15:45**
**Lo que faltaba**



Magazin arrosa.

17:05: **Querido detective.** Telesaila.
17:50: **Pacific Blue.**
18:40: **Bugs: Operaciones especiales.**
19:35: **Pacific Blue.**
20:20: **Todo o nada.**
20:58: **Teleberri.**
21:30: **Estrevista al lehendakari Ibarretxe.**
22:15: **Zinema.** **Dave, presidente por un día.** Zuz.: Ivan Reitman. Akt.: Kevin Kline, Sigourney Weaver.
00:15: **Zinema.** **La noche se mueve.** Zuz.: Arthur Penn. Aktoreak: Gene Hackman, Susan Clark, M. Griffith.
01:55: **Lo que faltaba.**

## gaurko filmak

*Ane Muñoz*

■ **PASION SIN BARRERAS.** Susan Sarandon, James Spader eta Kathy Bates aktore interesgarriak biltzen dituen melodrama hunkigarria da, oso gozagarria eta amodiozko istorio polita kontatzen duena. Exekutibo gazte baten eta kamarera heldu baten arteko harremanaren inguruan gaatzen da.

■ **UN TRANVIA LLAMADO DESEO.** Tennessee Williamsen klasikoaren azken bertsio zinematografikoa, ez da oso interesgarria baina, gutxienez, luxuzko aktoreek antzeztua dago : Jessica Langek eta Alec Baldwinek, adibidez, Stella eta senarra antzezten dituzte, eta Diane Lanek berriz, Blanche zakarrarena egiten du.

■ **LA MANO QUE MECE LA CUNA.** Curtis Hansonen *thriller* psikologiko honek arrakasta handia lortu zuen estreinatu zenean, eta berehala sortu zen imitazio pila bat, hau da, film hau bera eredutzat duten egitura bertsuko zinta ugari. Bestalde, Hansonenak ez du ezer berria kontatzen, aurreko bertsio askoren imitazio hutsa baita. Annabela Sciorra eta Rebecca de Mornay azaltzen dira; lehenak senarrak emazte eta ama zintzoa jokatzen du, eta bigarrenak, berriz, haren semetxoa zaintzen duen emakume susmagarria. Intrigazko uneak txukun filmatuta badaude ere, narraketaz arrunta da eta topikoek kaltetua dago, gainera. Suspentsea gustukoa duenarentzat ez dago gaizki; ikusteko modukoa da.

■ **DAVE, PRESIDENTE POR UN DIA.** Kevin Klinek Sigourney Weaverrekin batera protagonizaturiko komedia komertzial zozo eta arrunt samar honek, besterik gabe, une entretenigarria igarotzeko balio du. Erraz irensten baita, nahiz eta protagonistok biziko duten istorio korapilotsua topikoez josita dagoen. Herri txiki bateko gizon despistatu batek Estatu Batuetako lehendakariaren antza handia du, oso; eta haren bizitza arriskuan dagoenez, Etxe Zurira eramango dute, gizajoa, lehendakaria ordezkatzeko.



ARTXIBOKOA

**Melanie Griffith da *La noche se mueve* filmeko aktoreetako bat.**

### *Zinema beltzaren miresle baten omenaldia*

■ **LA NOCHE SE MUEVE.** Arthur Penn (*Bonnie & Clyde*, 1967) maisuaren lanen artean ez da arrakastatsuetakoa, baina bai ordea kuriosoetakoa. Rol nagusiak, Gene Hackmanek eta Jennifer Warrenek jokatzen dituzte, eta benetan zoragarri dabiltza zuzendari inspiratu horren aginduetara. Arretaz ikustea eskatuko dizuet. Izan ere, zinema beltzari egindako omenaldi eder hau edukiz konplexu eta astun samarra baita, dentsua, intelektuala, zertxobait ezatsegina halaber, baina pazientziaz hartuz gero ez duzue ildoa galduko eta tarte gozagarria igaroko duzue ziurrenik.

| Filma | Balorazioa | Urtea, zuzendaria | Ordua, katea |
|---|---|---|---|
| Un día con el diablo | ♠ | Miguel M. Delgado | 10:50 ETB2 |
| Amor bajo cero | ♠♠ | 1960, Ricardo Blasco | 11:00 La2 |
| Safari en Hollywood | ♠♠ | 1997, Henry Charr | 16:00 T5 |
| Carton jaune | ♠♠ | 1996, David Evans | 20:40 C+ (f) |
| Jack et Sarah | ♠♠ | 1994, Tim Sullivan | 20:50 M6 |
| Regain | ♠♠ | 1937, Marcel Pagnol | 21:00 F3 |
| La mano que mece la cuna | ♠♠♠ | 1992, Curtis Hanson | 22:00 T5 |
| Tranvía a la Malvarrosa | ♠♠ | 1996, Jose Luis Garcia Sanchez | 22:00 C+ (e) |
| Dave, presidente por un día | ♠♠ | 1993, Ivan Reitman | 22:15 ETB2 |
| Soleil vert (JBA) | ♠♠♠ | 1973, Richard Fleischer | 22:25 Arte |
| Max, le meilleur ami de l'homme | ♠♠ | 1993, John Lafia | 22:45 M6 |
| Le roi des aulnes | ♠♠♠ | 1996, V. Schlöndorff | 23:05 F2 |
| Pasión sin barreras | ♠♠♠ | 1990, Luis Mandoki | 23:40 TVE1 |
| La noche se mueve | ♠♠♠♠ | 1975, Arthur Penn | 00:15 ETB2 |
| La prisión de perros | ♠♠ | 1998, Ken Russell | 00:15 T5 |
| Un tranvía llamado deseo (JBA) | ♠♠ | 1995, Glenn Jordan | 01:45 La2 |
| Camino del sur | ♠♠ | 1978, Jack Nicholson | 01:55 A3 |
| Pasión Mortal | ♠♠ | 1990, Kristine Peterson | 03:30 T5 |

♠ TXARRA ♠♠ ESKASA ♠♠♠ BALEKOA ♠♠♠♠ ONA ♠♠♠♠♠ BIKAINA

## irratia ◆

Arrate Irratia: FM 87.7 ● Bizkaia Irratia: FM 102.6 ● Bilbo Hiria: 96.0. ● Euskadi Irratia: OM 1.161 ● Euskalerria Irratia: FM 91.4 ● Herri Irratia: FM 99.8 / OM 1224 ● Gure Irratia: FM 106.6 ● Irulegiko Irratia: FM 91.08 ● Segura Irratia: FM 89.2 ● Xiberoko Botza: FM 88.8 ● Xorroxin Irratia: FM 107.5.

**Euskadi Irratia.** Jaiegunak atzean utzita, eguneroko programazioari ekingo dio *Goizean behin* saioak. Gaur, Karmelo Urdangarin, Joseba Garmendia, Joseba Barandiaran eta Eduardo Malagon ekonomiaz arituko dira 08:45etik aurrera. Gero, Jakoba Errekondok asteroko bisita egingo du landareen inguruko guztia kontatzeko asmoz. 10:25etan NORBOLSAko Agustin Garmendiak Internet bidez nola inbertitu boltsan aipatuko digu, eta bide batez euroak zein eragin duen. Goizeko 11:00etan Andoni Egañak ohiko esaldia ekarriko digu, eta, bukatu aurretik, Juan Mari Irigoien idazleak kaleratu berri duen 'Hautsa eta maiteminak' liburua ezagutuko dugu. Horretarako, Irigoien bera izango da irratian.

**Herri Irratia.** Mariano Ferrer-ek egunero bezala eutsiko dio *El Kiosko de la Rosi*-ri, 07:30etan. Ondoren, tertulia izango da 10:00ak arte, eta ordu horretatik aurrera *Musutruk* magazina. Ondoren, Euskal Herriko eta munduko albisteak bilduko ditu *Euskadin Gaur* albiste emankizunak 13:00etan, eta ordu erdi geroago hasiko da *La movida deportiva*.